



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2015eko laugarren
hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

| | |
|---|----|
| a. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera..... | 3 |
| b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak | 7 |
| c. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak | 13 |
| d. eranskina - indizeak | 19 |
| e. eranskina - metodologia | 23 |
| <hr/> | |
| <i>fitxa teknikoa</i> | 26 |


a) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera

1. EAEko kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntza
geldiarazten da 4
 2. Estatuan eta EB-28an joera bera 5
 3. Alemaniako eta Erresuma Batuko familien konfiantza
gutxitu egin da aldiz 6
-

1. EAEko kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntza geldiarazten da

2015eko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizeak aurreko hiru hiruhilekoetako ia balio bera (-4) izan du: konfiantzaren hobekuntza-erritmoa gelditu egin da eta ez du balio positiboetara jotzeko susperraldi argirik erakutsi.


Dena den, nabarmendu beharrekoa da 2015ean¹, EAEko kontsumitzaileen batez besteko konfiantza (-6) 2014koa baino handiagoa izan dela (-13koa izan zen), baina oraindik ere ezkortasun-balioetan dago.



2. Estatuan eta EB-28an joera bera

Familien artean konfiantzaren susperraldiarekin lotutako atonia hori Estatuan eta EB-28an ere ikus daiteke. 2015eko laugarren hiruhilekoan, bi konfiantza-indizeen balioa errepikatu egin da eta ia ez da aldaketarik izan aurreko hiruhilekoetan izandako datuekin alderatuta.

Horrela, 2015ean, EAEko kontsumitzaileen konfiantza (-6), Estatukoena (0) eta EB-28koena (-4) aldaketaren atarian itxi da, baina ezkortasunetik baikortasunera aurrera egiteko aldaketarik ez da izan.




* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2015eko IV. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta urria eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkio.

3. Alemaniako eta Erresuma Batuko familien konfiantza gutxitu egin da aldiz

2015eko laugarren hiruhilekoan, Alemaniako eta Erresuma Batuko familien konfiantza okertu egin da (-5 eta 1 hurrenez hurren). Bi kasuetan, urte osoko datu okerrena izan da. Frantziak balio negatibotan jarraitzen du modu nabarmenean (-14).

Ezegonkortasun geopolitikoak faktore nabarmena izan daiteke inguruneko eta familien egoera ekonomikoaren eta sozialaren iritzia okertzeko garaian.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuaren eta Alemaniaren IV. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta urria eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie.


b) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

| | |
|---|-----------|
| 4. ekonomia orokorraren susperraldia ikusteko zain | 8 |
| 5. enpleguan aurrera daiteke joera hori | 9 |
| 6. baina ezkorrak dira familiaren ekonomiaren bilakaerari dagokionez | 10 |
| 7. eta ez dago konfiantzarik aurrezkoa suspertzeari dagokionez | 11 |
| 8. euskal kontsumitzaileen konfiantza ez da hasteko gauza | 12 |

4. ekonomia orokorraren susperraldia ikusteko zain

2015eko laugarren hiruhilekoan, ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko igurikimenen indizea -1ekoa da; hau da, aurreko bi hiruhilekoetako datuaren antzekoa.


2015eko ibilbideak modu nabarmenean erakusten du urteko bigarren hiruhilekoan familien igurikimenetan aldaketa gertatu zela ekonomia orokorraren egoeraren bilakaerari dagokionez (+11 puntu). Une horretatik aurrera, ordea, hautemate hori gelditu egin da eta, itxuraz, kontsumitzaileak ekonomia orokorraren susperraldirako bide argia ikusi zain daude.



5. enpleguan aurrera daiteke joera hori

EAEko familien igurikimenekin lotuta, emaitza onena enpleguarekin lotutakoak lortu du: 2015. urtean, hobetzeko joera izan du; urteko lehen hiruhilekoan, -3 lortu zuen, eta laugarrenean, aldiz, 6ko balioa izan du, hirugarren balio positiboa jarraian lortuz.


Enpleguaren hobekuntzako joera hori baieztatu izanak kontsumoarekin, aurrezkiarekin eta inbertsioarekin lotuta erabakiak hartzeko garaian familiek izan duten portaera eta igurikimen hobetarako oinarriak finkatu ditu.



6. baina ezkorrak dira familiaren ekonomiaren bilakaerari dagokionez

2015eko laugarren hiruhilekoan, familiako egoera ekonomikoaren igurikimenen indizea -6 puntukoa izan da; hau da, aurreko hiruhilekoetan ikusitakoaren antzekoa.


Balorazio horrek agerian utzi du EAEko familiak ezkor daudela. Hau da, ekonomia orokorraren (enplegua eta, batez ere, diru-sarrerak) susperraldia gertatzen ari dela modu argiagoan eta zuzenagoan ikusi behar dute beren ekonomia-egoerari buruzko igurikimenak hobe daitezen.



7. eta ez dago konfiantzarik aurrezkoa suspertzeari dagokionez

EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea oraindik ere ezkortasun-balioetan kokatuta dago (-15).

Euskal familien gehiengoak uste du aurreztea zaila izango dela eta/edo aurreko urtean baino neurri txikiagoan egingo dela. Hori dela eta, 2014an eta 2015ean, indize hori balio negatibotan mantendu da. Dena den, 2015eko¹ emaitza (-16) 2014koa baino hobea da (-33), oraindik ere konfiantzarik gabeko mailetan jarraitzen duen arren.



8. euskal kontsumitzaileen konfiantza ez da hasteko gauza

2015eko 4. hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea apur bat suspertu da (-4, +2 puntu). Ekonomia orokorraren bilakaerarekin (-4) eta familiako ekonomiaren joerarekin (-6) lotuta EAEko familien konfiantza ahula izateak eragin du emaitza hori eta, gainera, eragina izan du aurrezkiaren igurikimen (-15) txarrak. Enpleguak igurikimen positiboa izan duen arren, horrek ezin izan ditu balio negatibo horiek konpentsatu.

Hitz gutxitan esanda, 2015. urteak (batez beste) oraindik balio negatibotan (-6) dagoen EAEko familien konfiantza-indizea erakusten du. Enpleguaren igurikimenez izandako joera positiboa da, batez ere, izandako hobekuntzaren eragile nagusia.

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



| Indizea.... | <u>2014</u> | <u>2015</u> | <u>I H-15</u> | <u>II H-15</u> | <u>III H-15</u> | <u>IV H-15</u> |
|-------------------------|-------------|-------------|---------------|----------------|-----------------|----------------|
| Familien konfiantza | -20 | -6 | -9 | -4 | -6 | -4 |
| Ekonomia orokorra | -21 | -4 | -11 | 0 | -2 | -1 |
| Etxeko ekonomia | -15 | -9 | -9 | -15 | -7 | -6 |
| Langabeziaren bilakaera | -18 | 3 | -3 | 8 | 1 | 6 |
| Aurrezteko gaitasuna | -23 | -16 | -13 | -19 | -17 | -15 |

c) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak


- 9. ezin da aurreratu prezioen hazkundean igoerarik 14
 - 10. erosteko unearen balorazioa egonkortu egin da 15
 - 11. asmoari dagokionez, ez dirudi aldaketa nabarmena gertatuko denik 16
 - 12. etxebizitza/autoa erosteko asmoa ere ez da hobetu 17
 - 13. kontsumoaren susperraldiak bultzada behar du 18
-

9. ezin da aurreratu prezioen hazkunderen igoerarik

Ez da aldaketarik izan prezioen bilakaeraren igurikimenean eta EAEko kontsumitzaileen artean nagusi da hurrengo hilabeteetan prezioek berdin gora egingo dutela (%45) edo azken urtean baino polikiago igoko direla (%33) dioen gehiengoaren ustea.

Hori dela eta, beste adierazle batzuek izandako bilakaeraren modu berean (KPIa, petrolioaren prezioak eta abar), herritarrek inflazio baxuko egoera gertatuko dela uste dute.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

10. erosteko unearen balorazioa egonkortu egin da

¿Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Erosketa-unearen balorazioarekin lotuta aurreko hiruhilekoan ikusi zen hobekuntza gelditu egin da. 2015eko azken hiruhilekoko emaitzek banaketa bera erakusten dute kontsumitzaileen iritzian: hamarretik bosten ustez (%56), “berdin dio”. Hamarretik ia biren ustez, unea ona da (%17), eta hamarretik ia hiruk (%27) uste du oraindik ere unea txarra dela erosteko.



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11. asmoari dagokionez, ez dirudi aldaketa nabarmena gertatuko denik

¿Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2015ean, euskal kontsumitzaileek erosketako asmo baxua mantendu dute: hamarretik seik dio bere erosketak mantendu egingo direla; hamarretik bik (%25) uste du duela urtebete baino gutxiagoak izango direla, eta hamarretik batek baino gutxiagok handiagoak izango direla.

Horrenbestez, erosketa-asmoaren indize sintetikoak oraindik ere ez du aldaketa nabarmena izateko aurreikuspenik erakusten (-14koa, -10ekoa, -12koa eta -11koa 1., 2., 3. eta 4. hiruhilekoetan).


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(personen %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


12. etxebizitza/autoa erosteko asmoa ere ez da hobetu

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*) (pertsonek / familien %-a)



Etxebizitza erostearekin lotutako igurikimenak oraindik ere oso baxuak dira. Azken zortzi hiruhilekoetan bezalaxe, EAEko familien %2k bakarrik aipatu du datorren hamabi hilabeteotan etxebizitzako inbertsioaren bat egiteko probabilitateren bat duela.

Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*) (pertsonek / familien %-a)



Era berean, ibilgailua erosteko aukerari dagokionez, 2015ean mantendu egin da erosketasmoa duela dioten familien proportzioa (% 4 ingurukoa).




13. kontsumoaren susperraldiak bultzada behar du

2015eko 4. hiruhilekoan lortutako emaitzek baieztatu egin dituzte EAEko kontsumitzaileen urte osoko iritziaren oinarri diren faktoreak:

- Prezioen bilakaeran igurikimen positiboa (16).
- Beste hainbat faktoreren artean, hobetu egin da erosketa-unearekin lotutako iritzia, baina ez da ezkortasunetik atera ahal izateko behar adinakoa izan (-11).
- Horrek guztiak erosteko erabakiak suspertzea eragotzi du (-11).

Hitz gutxitan esanda, EAEko kontsumitzaileak beren kontsumo- eta inbertsio-asmoez jarrera-aldaketa justifikatuko lukeen susperraldi kontsolidatua eta nabarmena (diru-sarrerak, enplegua, aurrezkia) izateko zain jarraitzen dute.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

| | <u>I H-15</u> | <u>II H-15</u> | <u>III H-15</u> | <u>IV H-15</u> | <u>Aldea</u> | |
|------------------------------------|---------------|----------------|-----------------|----------------|--------------|---|
| Prezioen bilakaeraren igurikimenak | 3 | -7 | 11 | 16 | +5 |  |
| Erosterako unearen balorazioa | -21 | -33 | -10 | -11 | -1 |  |
| Erosketak egiteko igurikimenak | -14 | -10 | -12 | -11 | +1 |  |

⇔ (± 2 puntuko aldea)

d) eranskina - indizeak

- I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea 20**
 - II. Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera 21**
 - III. Beste adierazle batzuk 22**
-

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

| Laburpena: konfiantzaren indizea | 2014 | 2015 | I H-15 | II H-15 | III H-15 | IV H-15 | |
|--|------|------|--------|---------|----------|---------|---|
| Kontsumitzaileen konfiantza-indizea | | | | | | | |
| • EAE | -19 | -6 | -9 | -4 | -6 | -4 | → |
| • Estatua* | -9 | 0 | -1 | 2 | -1 | 0 | → |
| • EB* | -7 | -4 | -4 | -3 | -5 | -5 | → |
| ○ Frantzia* | -22 | -17 | -18 | -17 | -17 | -14 | ↑ |
| ○ Alemania* | 1 | 0 | 1 | 3 | 0 | -5 | ↓ |
| ○ Erresuma Batua* | 5 | 3 | 4 | 4 | 2 | 1 | → |
| Osagaiak: familien konfiantza. EAE | | | | | | | |
| • Ekonomia orokorra | -21 | -4 | -11 | 0 | -2 | -1 | → |
| • Etxeko ekonomia | -15 | -7 | -9 | -5 | -7 | -6 | → |
| • Langabezia | -18 | 3 | -3 | 8 | 1 | 6 | ↑ |
| • Aurrezkia | -23 | -16 | -13 | -19 | -17 | -15 | → |
| Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE | | | | | | | |
| • Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak | 3 | 6 | 3 | -7 | 11 | 16 | ↑ |
| • Erosteke unearen balioztapena | -23 | -19 | -21 | -33 | -10 | -11 | → |
| • Erosketak egiteko igurikimena | -20 | -12 | -14 | -10 | -12 | -11 | → |
| Erosketa handiak. EAE.** | | | | | | | |
| • Etxebizitza | 2 | 1 | 1,0 | 2,1 | 1,2 | 1,3 | → |
| • Autoa | 4 | 3 | 3,4 | 3,5 | 3,1 | 3,4 | → |

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* IV hiruhileko datuak urria-azaroko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Konfiantza, kontsumitzaileen ezaugarrien arabera

| | 2014 | 2015 | I H-15 | II H-15 | III H-15 | IV H-15 | |
|---|------|------|--------|---------|----------|---------|---|
| Kontsumitzaileen konfiantza-indizea | | | | | | | |
| • EAE | -19 | -6 | -9 | -4 | -6 | -4 | → |
| Adin-mailak | | | | | | | |
| • 25 eta 39 urte bitartean | -16 | -4 | -6 | -6 | -1 | -4 | ↓ |
| • 40 eta 54 urte bitartean | -15 | -4 | -11 | -1 | -2 | -1 | → |
| • 55 eta 64 urte bitartean | -23 | -9 | -10 | -5 | -14 | -7 | ↑ |
| • 65 eta 74 urte bitartean | -27 | -8 | -9 | -4 | -13 | -7 | ↑ |
| Lan-egoera | | | | | | | |
| • Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa) | -14 | -1 | -4 | 0 | 1 | 0 | → |
| • Langabea | -37 | -19 | -25 | -16 | -18 | -16 | → |
| • Ez-aktiboa (erretiratu, etxeko langilea, ikaslea, ..) | -25 | -8 | -9 | -3 | -12 | -7 | ↑ |
| Familia-unitatearen hileko errenta | | | | | | | |
| • 1.700 €-rainokoa | -35 | -21 | -26 | -16 | -23 | -17 | ↑ |
| • 1.701 eta 2.800 € bitartekoa | -20 | -3 | -6 | -3 | -4 | 0 | ↑ |
| • 2.800 €-tik gorakoa | -2 | 9 | 8 | 13 | 8 | 8 | → |

Beste adierazle batzuk

| Beste adierazle batzuk | IV H - 14 | I H - 15 | II H - 15 | III H - 15 | IV H - 15 _(P) | (azkena) |
|---|-----------|----------|-----------|------------|--------------------------|----------|
| BPG | 2,1 | 1,9 | 2,9 | 2,8 | - | III hir. |
| Familien kontsumoa | 3,4 | 0,3 | 3,3 | 3,1 | - | III hir. |
| Afiliazioa | 1,4 | -0,1 | 0,8 | -0,7 | 2,2 | urria |
| Erregistratutako langabezia | -0,2 | 1,8 | -5,6 | -4,3 | -0,3 | urria |
| Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea | 1,0 | 0,0 | 0,1 | 1,1 | - | III hir. |
| Azalera handien salmenta-indizea | 2,8 | -0,6 | 0,2 | 0,2 | 0,1 | urria |
| Etxebizitzen salerosketa | -3,5 | 21,0 | 10,3 | -5,9 | - | III hir. |
| Ibilgailuen matrikulazioa | 19,3 | 1,2 | 4,7 | -10,8 | 10,8 | urria |

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza.

e) eranskina - metodologia

- I. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 24**
 - II. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 25**
-

Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek



fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Azaroaren 2. eta 3. astean (2015eko IV. hiruhilekoa)*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm

Txostena eta Ikerketa: Iker,R&C

Landa lana: Datakey

Eskerrik Asko